

Erekzioak

Oihane Larretxea
de la Granja

Gurasoen habitik hegan egitea nahia eta ezina da gurean. Hegoak ebakita libre izan nahi duen txoritxoaren antzera. Gijazjoa. Alkilerrean bizitzeak batez beste 911 euroko kostua du Donostian gaur. EAEko hiriburuen artean garestiena da, eta Estatu mailan ere podiuma egiten dugu. Urre eta zilarraren artean ibiltzen gara. Horra gure Donostia, redio!

Bada bolada bat hiriburuko luxuzko etxebizitzaren salerosketa pozteko moduko albiste gisa eskaintzen ari zaigula; sektorearen loraldia omen da, eta hori «ona» omen da. Horrekin nahikoa ez eta astero-astero, Aldizkari Ofizialaren funtzioa betetz, salmentan dauden elitezko

etxeen publiberreportajeak ere idazten dira. Non argitaratzen diren esan beharrik ez dago.

Norberaren esku dago irakurri edo ez, baina argitaratze hutsarekin mina egina dago. Zergatik bihurtzen dira halakoak albiste? Zein interes dago atzean? Bada inor honekin erekziorik duenik? Baiezkoan nago.

Dirutza ordaindu dezaketenak gure postala pixkanaka erosten ari diren bitartean, proiektu bitala postalaren barruan irudikatzea gero eta zailagoa egiten ari zaigu bertakooi. Eskaintza urria, eskaera handia, prezioak gora. Ekonomiako fakultaterik ez da zapaldu behar hori barneratzeko.

Badira lau zpabost urte Alde Zaharreko tabernari bati nire harridura azaldu nio la pintxo hotz baten truke kobratu zidanagatik. Ardo beltza kopa eskuan, albo ko gizonak buelta erdia eman zuen. «*Señorita, esto es San Sebastián*». Plazera sentitzen ari zen, ez zuen ezkututzen. Eta neurri batean poztu nintzen, aurrez aurre zihoalako.

Erekzioa ezkututzen dutenek kezkatzen naute gehiago, beren burua ezker tiartzat izan baina “*Tonto el último*” le mapean hutsik duten etxebizitzagatik mozkin ahalik eta handiena ateratzen saiatzen direnak. Zeren horiek ere «alde honetan» badaude. Horiek ere eramaten dute Donostia podiuma egitera. •

Apartheid trena

Koldo Sagasti

Pasa den otsailean Amnesty International erakundeak Israelgo Estatua apartheid erregimena dela salatzen duen txostena kaleratu zuen. Argitalpena 2017an abiatutako ikerkuntza lan luze baten emaitza zen eta bertan bildutako dokumentazioak agerian uzten zuen ordurako Palestinako zein nazioarteko beste eragile askok duela urte askotatik salatzen zutena: Israelek gizateriaren aurkako ekintza sistematikoak gauzatzen dituela; zapalkuntza testuinguru instituzionalizatu baten baitan egiten duela; eta ekintza horien jomugan irizpide etnikoen arabera baztertutako populazioaren zati bat dagoela, palestinarrek hain zuzen.

Gauzak horrela, eta ezaugarri horiek guztiak betetzen dituela kontuan hartu-

ta, Israel apartheid estatu bat dela ondozotzatzen du dokumentuak. 300 orrialdeko lanak arlo askotako laginak bildu ditu salaketa arrazoitzeke, besteak beste, bertako populazio palestinarra segregatzen duten egitura legal eta juridikoak edo hirigintza proiektuak. Izan ere, Tel Aviveko erregimenak diseinutako azpiegitura estrategiko askok palestinarrek baztertzea eta mugiaraztea dute helburu, ilegalki okupatutako eremuei iraunkortasun bermea emateko.

Bazterkeriaren azpiegitura horietako bat Beasaingo CAF konpainia Jerusalem eraikitzen ari den tranbia arina da. Nazioarteko legedia urratzen duen trenbidearen eraikuntzan parte hartzeak kolokan jarri du Gipuzkoako enpresaren irudi korporatiboa nazioarteko merkatuetan, eta hain da delikatu egoera

non Kontakturako Nazio Puntuak, Espainiako Merkataritza Ministerioari atxikitako erakundeak, gomendio sorta bat eman behar izan dion konpainiari bere jardunean bete beharreko jokabide etikoen inguruan. Eta, hara non zurrumbilo honen erdian Eusko Jaurlaritzak esku hartu duen gatazkan, nola eta erakunde publikoak CAFen duen parte hartzea hirukoiztuz. Izan ere, Lakuako Gobernuak akzioen %1etik %3ra igo du enpresaren kapitalean duen partaidetza.

Agian kapitalaren logikaren baitan ezin izango zaio eskatu enpresa pribatu bati irizpide etikoen arabera joka dezala, baina erakunde publiko bati bai, exijitu egin beharko genioke ez dezala parte hartu apartheidaren sostengatzen duten azpiegituren eraikuntzan. •